

## SEGMENTAZIOA

Gure baso anti-droga gehienbat gizartearen parte diren gazteei eskeiniko diogun produktua da. Jai-arloan, edota alkohola dagoen espazioan aritu ohi den pertsonei, hain zuzen ere. Era berean, eraso larrienak eta gehienak jasaten dituztenak izanda, emakumeengan sakonduko genuke gure produktua.

Dena den, gure helburua jai eremu oraindik ez erabat seguru hauetan aritzen den orori eskaini ahal izatea da. Gaur egungo txosnetako plastikozko baso arruntak izango balira bezala edonork eskura ahal izatea da gure nahia.

Gainera, gure bezerotza gaztea izanik, diru-sarrera eskasak, baxuak edota sarrerarik ez duenari begira gaude. Beraz, gure produktuaren prezioa merkea izan beharko litzateke, gaur egungo txosna basoen prezioetara hurbilduz behintzat.

